



HEZKUNTZA LEGEA

DENOK

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BURUJABEA

ERAIKIZ!



ELAko
txosten osoa
elebitan

Jaurlaritzaren Hezkuntza lege aurreproiektuak egungo sistema betiketuko du. ELAko Euskal Eskola Publiko eta burujaberako trantsizioa eraiki nahi du.

ELAko sakoneko eraldaketa nahi du hezkuntzarako, eta lege berriak beharrezkoa den norabide aldaketa ekarri beharko lukeela irizten du. Lan baldintza egokidun Euskal Eskola Publiko eta burujabea du helburu sindikatuak, eta ildo horretan eragitea da ELAren zioa.

Aurreproiektu hau lege bihurtuz gero, ordea, ez da aldaketa hori gertatuko:

- Ez da curriculum propioa garatzeko biderik aurreikusten.
- Orain arte legez doakotasuna aldarrikatzen da, baina ez da hori bermatzeko neurririk eta baliabiderik ezartzen, ezta doakotasuna ez dagoen kasuetarako ondorioz ere.
- Segregazioari aurre egiteko neurri guztiak dekretu bitartez garatuko dira. Horren ondorioz, ez dago jakiterik eskolek ikasle zaugarri kopuru orekatuak izateko baldintzak egongo diren. Ikasle zaugarriei laguntza bereziak emateko irizpiderik ere ez da azaltzen.
- Ez da garatu borondatez publikatu nahi duten eskola komunitateentzat bideorririk.
- Hiru irakas-hizkuntza izango direla ezartzen da. Ondorioz, euskarak presentzia galduko du egun nagusi den D ereduari. Gainera, beste ereduari kasuan ez da proposatzen legeak ezartzen duen B2 maila bermatzeko aldaketarik.



Aktibatu Lortu Zaindu

- Ez dago finantziario aurreikuspenik, nahiz eta egun EAEn hezkuntzak Europako batezbestekotik oso beherako inbertsioa duen.
- Eskolen autonomia aldarrikatzen da, baina hau posible egin dezaketen baldintzaz ez dago.
- Eskola-komunitatearen parte hartzea ez da arautzen (badira hainbat organo, baina gehienetan ez dago gutxiengo araudirik).
- Kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoak diren lan baldintzei aipamenik ez zaio egiten, besteak beste, izugarritzko behin-behinekotasuna, eskolen itxieraren mehatxua eta lan kargen hazkunde handia pairatzen duten profesionalak ezinbestekoak direnean kalitate hori bermatzeko.

ELAk alegazioak aurkeztuko dizkio aurreproiektuari eta eskaera sindikalak bideratzeko mahai baten eraketa eskatuko du. Hemen alegazio nagusienak:

1- Lan baldintzei begira:

- **Sistema publikoan egonkortasuna bermatzea.** Hezkuntza publikoan behin-behinekotasuna 3 urtean % 8tik behera kokatzeko ibilbide zehatz bat adostu behar da.
- **Langileen birkokapen akordioa** betetzea itunpekoan.
- Sistema publiko eta itunpekoen arteko **lan baldintzen parekatzea** eta hobetzea 5 urtean.
- **Lanpostuak ugaritzea** kalitate handiagoko hezkuntza lortzeko.
- **Langileen hautaketa sistema berrikustea:** LEP eredu berri baterako trantsizioa adostea.



- **Itunpekoan kontratazioaren gardentasuna bermatzea.** Itundutako eskolen lan eskaintza guztiak eta hautagaien merituak publiko egiteko webgunea osatu behar da.

2- Hezkuntza ereduren eraldaketarako:

- **Euskal curriculum berria garatzeko pausuak ematea.** Legeak curriculuma erabakitzeko eskumena EAEn egon behar duela jaso behar du, erreferentzia markoa Euskal Herria izanik, eta curriculum hori sortzeko prozesu parte hartzailea egongo dela aurreikusi. Azkenik, adostutako curriculuma Espainiako Gobernuaren aurrean defendatzeko akordio soziopolitiko bat adostu behar da.

- **Ikasmaterialak modu autonomoan** sortzeko azpiegitura aurreikustea.

- **Euskarazko murgiltze eredu eraginkorra ezartzea.** Irakas-hizkuntza izateaz gain, euskararen presentzia eskolaren jarduera guztietan (jantokian, eskolaz kanpoko ekintzetan, jolas orduen zaintzetan, autobus zerbitzuetan...) bermatu behar da, eta bere erabilera neurtu.

- **Publikaziorako markoa ezartzea.** Sare publikoan sartzea erabakitzen duen edozein eskola itundu edo pribatuk, eskola komunitateak hala erabakita, aldaketa gauzatu ahal izateko Hezkuntza Legeak horretarako gutxieneko oinarriak jaso behar ditu. Horien artean langileen subrogazioak egon beharko du.

- **Doakotasuna bermatzea:**

- > Gutxienez 30 ikuskatzaileko talde baten sorrera jaso behar du legeak.

- > Finantzazio publikoa jasotzen duten eskolek kontuak publiko egin, eta "Gardentasun Mahai" bat sortu beharko da sindikatu, guraso elkarte eta alderdi politikoekin.

- > Itunpeko eskolen finantzazio sistema berriaren zehaztasunak argitu behar dira.



- > Azpiegituren ordainketa nola egingo den zehaztu beharko da (igerilekua, esaterako) eta eskola guztientzat pareko irizpideak ezarri.
- > Eskolaz kanpoko jardueren ordainketa modua argitu behar da.

- **Segregazioarekin amaitzeko neurri zehatzak jasotzea:** Legeak, ikasle zaurgarriak eta ez zaurgarriak proportzionalki banatuko direla bermatu behar du. Baita proportzio hori orekatua izan behar duela herri bateko eskola guztietan. Hori bermatzeko legeak ondorengoak jaso behar ditu:

- > Matrikulazio sistemaren bidez eskola guztiek ikasle zaurgarrientzako plazak erreserbatu behar dituzte eta matrikulazio bulego bakarra ezarriko dela.

- > Erreserbatutako plazak ikastetxea dagoen herriko zaurgarritasun tasaren proportzio berekoa izan beharko dela. Finantziazio publikoa jasotzeko baldintza gisa erabili behar da zaurgarritasun tasa.

- Hiru urteko epean Europako batez besteko inbertsio publikoa bermatzea, ondorioz, **Barne Produktu Gordinaren %4,7** bideratuko da hezkuntzara.

- **Ikastetxeen autonomia bermatzea.** Horretarako legean aipatzen diren organoen kideen hautaketa, funtzionamendua eta baliabideak argitu behar dira.

- **Eskolen desmerkantilizatorako neurriak jasotzea.** Besteak beste, 5 urtean hezkuntza sistema software librearen bitartez funtzionatzeko trantsizioa jaso behar du legeak. Bestalde, azpikontratazio eta pribatizazio prozesuekin bukatzeko neurriak ere bildu behar ditu, azpikontratazio berriak egiteko debekua jasotzetik hasita.

Eskaera hauek bideratu ezean, ELAk beharrezko mobilizazioak sustatuko ditu!